

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Jendaurrean jartzen baita, izan litekeen lehiaren ondorioetarako, instalazio honetarako administrazio-baimena: Bastidako udalerrian (Araba), Gatzaga Buradongo herrigunean petrolioaren gas likidotuak (PGL) biltegi finkoan biltegitratzea, eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea

Gas erregaiak kanalizazio bidez banatzeko eta garraiatzeko instalazioei dagozkien administrazio-baimenen prozedurei buruzko ekainaren 9ko 76/2020 Dekretuan, Hidrokarburoen Sektorari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean, petrolioaren gas likidotuak banatzeko jardueraren Erregelamendua onartzen duen irailaren 11ko 1085/1992 Errege Dekretuan eta gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (01etik 11ra) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoan aurreikusitako ondorioetarako, eskabide hau jendaurrean jartzen da, izan litekeen lehiaren ondorioetarako:

– Eskatzailea: Ned Suministro GLP SAU, helbidea: Concha Jeneralaren kalea 20, 48010 Bilbao.

– Eskabidearen xedea: Gatzaga Buradongo (Bastida, Araba) herrigunea gasifikatzeko beharrezkoak diren gas propanoko azpiegiturak (PGL) eraikitze aldez aurreko administrazio-baimena.

– Erreferentzia: 01CGY 202000005.

Gatzaga Buradongo (Bastida) herrigunean petrolioaren gas likidotua biltegi finkoan biltegitratzea, eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea.

– Eremu geografikoa: Gatzaga Buradon herrigunea (Bastida – Araba).

– Prozeduraren hasiera-data: 2020ko irailaren 29a.

– Ebazpena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea: 76/2020 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

– Administrazioaren isiltasunak dituen ondorioak: ezestekoak.

Hori guztia argitara ematen da lehiatzeko eskabideak aurkezteko aukera egon dadin, hila-beteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, 01008 Vitoria-Gasteiz).

Lehia-prozeduran aurkezteko eskaerarekin batera, 76/2020 Dekretuaren 8. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da gutxienez, eta dekretu horren 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 15a

Arabako lurralde-ordezkaría
JESÚS PASCUAL LORENTE